

# PROPOSAMEN OROKORRA



## **EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

Euskal Herriko Bilgune Feminista gure herrian egon den eta gaur egun dagoen tradizio feministaren ondorioa da. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik egun arte, esparru desberdinetan eta ahalegin handiz, praktika eta teoria feminista bultzatu dituzten emakume eta talde feministen ondorioa gara. Gauzak aldatzeko, ezkutuak izan diren gure eta gure herriaren historia, hizkuntza eta errealitatea transmititzeko kemena izan duten emakumeen leinukoak gara. Eta pil-pilean, urgentziaz beterik dagoen Euskal Herriko orainak bultzatu gaitu etorkizunari itxaropenez begiratzen dion bilgune feminista hau sortzera.

Euskal Herri osoan zehar eta esparru sozial desberdinetan jarduten dugun euskal emakume feministak gara. Feministak garen aldetik, bizitza sozialaren eremu guztietan ematen den bereizkeri sexuala eta sozialari aurre egingo diegu, ez soilik gure aldarrikapenen bidez baizik eta gure egunerokotasunean, lan egiteko eran, irudian, hizkuntzan, harremanetan.... Historikoki bizi izan dugun zapalkuntzaren ondorio objektibo eta subjektiboari aurre egingo diegu identitate kolektibo eta indibidual zein harreman askeak aldarrikatuz. Euskal emakume zapalduaren bozgorailua izaten saiatuko gara.

Eta euskaldunak garen heinean, Euskal Herrian gauzatu nahi dugu gure proiektu politiko feminista. Beraz, herri moduan biziraute, garatze eta hobetzeko bidean etorkizun bidezkoago bat helburua duten mugimendu sozial abertzale eta aurrerakoiekin eskuz esku arituko garen eragile feminista izango gara. Bestetik, eta bizi dugun gatazka politikoaren aurrean, euskaldun moduan gure etorkizun kolektiboaz erabakitzeo dagokigun eskubidearen alde egiten dugu.

Neoliberalismo eta patriarkatuari aurre egiten aurrerakoiak diren mugimenduekin batera -emakumeen talde, erakunde feminista eta gainontzeko eragile sozialekin batera- lan eginez, eredu sozial aske bat bultzatu nahi dugu. Herri mugimendu hauetan sortzen den energia zabal eta geldiezin hori gure ahalmen xumeen bitartez bultzatzera eta puzzle integral, koloretsu eta orokor baten partaide izatera gatoz. Gure ustez, orain arte hutsik egon den espazio bat betetzera gatoz. Euskal Herriko feminismoa artikulatzeko proposamen berri bat eskaintzera gatoz.

### **1. EUSKAL HERRIKO EMAKUMEON EGOERAZ EGIN DUGUN IRAKURKETA**

Sexu zapalkuntzaren existentzia eta ondorioak begi-bistakoak dira. Euskal Herriko populazioaren erdia baino gehiago garen emakumeon egoeren arteko desberdintasunak egonda ere, esparru batzuetan aurrerapauso handiak emanda ere, lan, espazio eta pertsonen identitatea sexuaren arabera hierarkikoki banatzen dira oraindik gure herrian.

Bizi garen zapalkuntza globala da, sexuen arteko botere-erlazioak eta ondorioz, sexu bereizkeria bizitza eremu guztietan ematen da. Eremu ekonomikoan balore sozial desberdina duten ekoizteko eta ugaltzeko betebeharrak bereizituak sexuen artean banatuz islatzen dira botere erlazio horiek. Maila politikoan, -eta boterea erabiltzeko era gisa-, erabakiak hartzeko ahalmen bereizituak ere egokitzen zaizkigu emakume eta gizonei. Eta maila ideologikoan, sozializazio prozesu zein bitarteko desberdinen bidez identitate edo izateko era bereizituak ezartzen dizkigute.

Espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa erakundetuta dago, espazio bakoitzean burutzen diren lanek, pertsonen arteko harremanek eta eratzen diren identitateek balore eta onarpen bereiztuak dituzte. Gaur egungo sistemak norbanako itxaropen, aukera eta debeku sozial bereiztuak egokitzen dizkio sexu bakoitzari eta, ere berean, debeku kolektibo bereiztuak ere ezartzen dizkie emakumei eta gizonei. Sexuen arteko bereizketaren arabera eraikitako antolaketa sozialak beraz, bizirik dirau.



Bestetik, azken urte hauetan emakumeok gure askatze prozesuan izan behar dugun aitzindaritzia eta patriarkatuaren erasoan aurrean autonomoki antolatzeko izan dugun gaitasuna galtzen ari garelakoan gaude. Egoera honetan, jendartea ez mobilizatzeko bideak bilatzen dituen botereari, gure ustez, lagungarri gertatzen zaio instituzioak aldaketarako gakoa kontsideratzearen ideiak.

Baina errealitate hauek bizitzeak ez du berez, emakumeon egoera larriaren inguruko kontzientzia eta erantzun grinarik sortarazten. Horregatik, kontuan izan behar dugu, gure inguruko emakumeen artean kontzientzia feminista pizteko egingo dugun lanak eta bultzatuko dugun dinamika feministaren eraginkortasunak soilik sortaraziko dutela benetako aldaketa sozial atzeraezina. Hori lortu ahal izateko, ezin dugu -aurreko garaietan bezala- erantzun partzial eta isolatuak planteatu. Aitzitik, emakumeon eskubideak gauzatzeko planteatzen ditugun ekimen guztiak, jendartearen aldaketa globala lortzeko "errezeta" berean kokatu eta artikulatu beharko lituzke egungo mugimendu feministak. Horretarako, eragile feminista guztion arteko komunikazioa, aliantza eta kontzientzia kolektiboa ezinbestekotzat jotzen ditugu.

Mendez iraun duen zapalkuntza bati aurre egiten ari gara eta badakigu sexuen arteko erlazio berriak sortzea ez dela egun batetik bestera etorriko. Hori lortzeko behar dugun kontzientzia maila eta inizatiba ez dira era eta erritmo berberekin emakume guztiengan piztuko, sexu bereizketaren aurka ekiteko beharra edo gure ekimen feministetan parte hartzearen beharra ez da tentsio berberarekin gizon guztiengan biziko.

Gure ustez, emakumeon ekimen askatzaileak artikulatzeko zein gizon progresisten elkartasuna eta laguntzeko jarrerak bideratzeko garaia heldu da. Jendartearen benetako aldaketa lortu nahi badugu, has gaitezen emakume feministen arteko aliantza estrategikoak adosten eta gizon progresistek gurekin batera patriarkatuaren aurka ekiteko espazio berriak eskaintzen. Euskal Herriko Bilgune Feminista bide horretatik urrats kualitatiboak eta atzeraezinak emateko proposamenak lantzen saiatuko da, euskal emakumeontzako errealitate berri hori sortzeko ahaleginetan.

## **2. GURE PROPOSAMENA: EUSKAL HERRIRAKO PLAN FEMINISTA ESTRATEGIKOA**

Sexu bereizkeriaren ondorioz emakumeok bizitzen eta biziko ditugun errealitate ekonomiko, ideologiko eta politikoei "topeak" jartzeko eta alternatiba orokorrak planteatzeko beharra dagoela uste dugu.

Sexu berdintasuna sortzeko proiektu feminista global bat behar da. Globala eta integrala den sexu bereizkeriari irtenbidea emango dion proiektua hain zuzen. Arazo desberdinei ematen dizkiegun erantzunak aldaketa soziala bultzatuko duen proiektu global baten barnean kokatuko dituen plan integrala. Erantzun partzialak eraginkorrak baitira soilik sexu bereizkeriaren zutoinak aldatzera joango den plan feminista orokor baten barnean osagarri badira.

Historian zehar eman den eta gure kultura eta egitura desberdinetan sustraitua dagoen sexu bereizkeriari aurre egiteak, arazo larri batzuei urgentziazko neurriak ipintzea, beste batzuen aurrean prebentzioa lantzea, ala sexuen arteko harreman bidezkoetan oinarritutako antolaketa sozial berria eratzea eskatzen ditu aldi berean.

Horretarako, eta jakinda hau ez dela ez egun batetik bestera sortuko, ezta tentsiorik gabe gauzatuko *Euskal Herrirako Plan Feminista Estrategiko* baten beharra proposatzen eta aldarrikatzen dugu. Planak berak atzera ezina bihurtuko den urratsa izan behar du, Euskal Herriko botere eta instituzio desberdinek bere gain hartu beharko luketen apustua izan behar du. Bere gain hartzeak bide honetan egongo diren oztipoen aurrean irmotasuna eta erabakigarritasuna azaltzea suposatzen du.

## **Euskal Herrirako Plan Feminista Estrategikoaren ezaugarriak**

Gure ustez, Euskal Herrirako Plan Feminista Estrategikoak honako ezaugarri hauek izan beharko lituzke:

- *Emakumeon errealitatearen gaineko diagnostiko batetik abiatuko den plana izan behar da*: diagnostiko orokorra (non gauden eta norantz goaz) baina era berean zehatza (urgentziazko arazoak eta zapalkuntza mantentzen dituzten mekanismoak detektatzea, emakumeen arteko desberdintasunak...) egin behar da. Diagnostiko fidagarria egin ahal izateko, sexuaren aldagaia eta Euskal Herri osoko errealitatea barne hartzen dituzten estatistiken elaborazioa bermatu beharko lituzkete instituzio desberdinek.

- *Feminismotik abiatuko den plana izan behar da*: eremu publiko eta pribatuan ematen diren sexuen arteko botere erlazioak gainditzera zuzenduta egon behar du. Plan hori diseinatzeko erabiliko diren kontzeptuak eta prozedurak ezi dira eredu androzentrikoetan oinarrituta egon behar. Plana beraren definizioa zein gauzapena emakumeon protagonismoarekin burutu behar da.

- *Euskal Herria abiapuntutzat hartuko duen plana izan behar da*: Euskal Herri osoko arlo eta eremu zehatzetan gauzatuko den plana denez, tokian tokiko ezaugarrien araberako irakurketa burutu beharko du. Eta azterketa zehatz horiek Euskal Herri osoan benetako aldaketa gerta dadin artikulatzeko beharra aurreikusi beharko du plan feminista horrek.

- *Planak estrukturala izan behar du*: gaur egungo egoeraren aurrean estrukturala, eta ez behin-behinekoa izango den alternatiba eskaini behar du, sexu bereizketaren muinera joz, sexuen arteko harreman askeetan eta justizia sozialean oinarritutako antolaketa soziala sortzeko plana izanik.

- *Plan integrala*: sexu bereizketak leku eta eremu bakoitzean ondorio eta forma zehatzak izanda ere, guztiak iturburu beretik sortzen dira. Honen aurrean planak zehar lerro gisa aldi bereko eragina izan beharko du eremu ekonomiko, sozial, politiko eta ideologikoetan.

- *Plan eraginkorra*: emakumeon egoera benetan aldatzeko presio mekanismoak, asmatu, proposatu eta erabiliko dituen plana izan behar da. Presio mekanismo horiek orokorrak zein berezituak izan beharko lirateke eraginkortasuna eremu guztietan bermatu ahal izateko.

## **Euskal Herrirako Plan Feminista Estrategikoaren lehentasunezko helburuak**

Gure ustez, gaurtik has gaitzke emakumeontzako errealitate berri bat sortzen, sexuen arteko harreman bidezkoak eratzen. Plan Feminista honek hiru lehentasunezko helburu izan beharko lituzke: batetik, *emakumeon bizi-baldintzak hobetzea*; bestetik, *identitate kolektibo eta indibidualetan eragitea* eta azkenik, *zapalkuntzaren izaera objektibo eta orokorra sozializatzea*.

### **1. Emakumeon bizi-baldintzak hobetzea. Duintasun eta independentzia ekonomikoa bermatu eta bizitzaren eremu guztietan pairatzen ditugun diskriminazioei aurre egitea.**

- Emakumeon independentzia ekonomikoa erabakitzeko ahalmena eta autonomia bermatzen dituen oinarritzko baldintza da.
- Eremu pribatuan egiten den eta egin den lanaren onarpen soziala emakumearen ongizate eta auto-estimurako beharrezkoa da.
- Emakume multzo handiek dituzten bizi-baldintza larriak gainditzea urgentea da.

- Eremu guztietan bizi ditugun diskriminazioak gainditzea oinarritzko eskubide demokratikoa izateaz gain, bizitza duina izateko oinarria da.

## ***2. Sexu-bereizkeriaren garapen historikoa, bere ondorioak eta gaur egun duen gauzatzeko era jendartean ezagutaraztea.***

- Patriarkatuaren logika historikoa, patriarkatuaren existentzia objektiboa onartzea eta patriarkatuaren aurrean dauden proiektu politiko desberdinak, jendarte osoak emakumearen egoerari buruzko kontzientzia hartu ahal izateko ezagutu beharreko oinarritzko edukiak dira.
- Patriarkatuak lortu duen oinarritzko eduki horien desitxuratzea gainditu behar dugu. Patriarkatuak munduan zehar eta Euskal Herrian izan duen bilakaera, gaur egun bizirauteko dituen mekanismoak, nazioarteko eta hemengo mugimendu feministaren borrorak, antolatze erak, planteamendu teorikoak, proposamenak eta abar ezagutu beharko lituzke jendarteak.
- Oinarritzko eduki hauek argituz, emakumeon zein gizonen memoria kolektiboa eta sexu bereizkeriaren inguruko kontzientzia indartuko dugulakoan gaude. Oinarritzko eduki horiek ez desitxuratzea eta jendartean ezagutaraztea edozein eragile publikorentzat derrigorrezkoa izan beharko luke.

## ***3. Sexuen arteko bereizketa hierarkikoa gaindituko duten harreman pertsonal eta kolektiboak sortzea.***

- Irakaskuntza, kultura eta komunikabideak jendartea eraldatzeko bitartekoak bihurtu behar dira.
- Balore ekonomiko, sozial ala politikoa duten jarduteko, pentsatzeko eta izateko era gehienak (positiboak direnak, garapen pertsonal zein kolektiborako eraginkorrak direnak...) maskulinitasunarekin erlazionatzen dira oraindik. "Berdintasuna"ren jendarteak bere burua maskulino bihurtu du. Ondorioz, gaur egun, gizon maskulino, emakume femenino (gizonaren ikus puntutik definitua) ala emakume maskulinoa ("super woman") besterik ezin dugu izan. Gero eta homogeneoagoak diren eredu horien aurrean beste identitate batzuek duten lekua oso txikia eta marjinala da.
- Beraz identitate kolektibo eta indibidual berriak asmatzeko eta eratzeko bidean, gaur egungo ereduak sortarazten dituzten kalteak, bultzatzen dituzten bizitzeko ereduak helburu eta baloreak agerian utzi behar ditugu.
- Horrekin batera, nagusiak diren ereduak aurrean gainontzekoek izan behar duten askatasuna bermatu behar ditugu.

## **3. LEHENTASUNEZKO HELBURUAK LORTZEKO BIDEAN HARTZEN DITUGUN KONPROMISOAK**

1. Sexuen arteko harreman bidezkoetan oinarritutako jendartea lortzeko beharrezkoak diren proposamenen etengabeko konkretzioa egitea eta egitasmo zehatz horiek gauzatu ahal izateko ezinbesteko bitartekoak bilatu zein ekimen eraginkorrak diseinatu eta bultzatzea.

2. Euskal Herrian dauden eragile feminista desberdinen arteko elkar ezagutza, harremana, kontrastea eta elkarlana bultzatzea. Horretarako hausnarketa eta borroka

komunak proposatzen saiatuko gara, norbanako esperientzia eta egitasmoak ikasgai eta eredu kolektibo bilakatuz.

3. Euskal Herrian dauden eragile politiko, instituzional, sozial eta ekonomikoekin harreman-zubiak irekitzea:

- Laguntza harremanak: sexu berdintasunaren aldeko bidean aritu nahi direnei ahal izango dugun heinean bitartekoak eta laguntza emateko.
- Era berean erantzukizunak eskatzea sexu bereizkeria sortzen, mantentzen edo ahanzten duten eragile sozialei, aldarrikapen eta mobilizazioaren bitartez.

4. Emakume zapalduaren aldeko kontzientzia indibidual eta kolektibo bultzatzea. Gutxituaren kontzientzia sexu bereizkeriak sortzen dituen onura ekonomiko, sozial eta politikoak eraldatzeko oinarritzko osagaia delakoan gaudelako:

- Lan ideologikoaren bitartez, historian zehar eremu guztietan ikusiezina eta baliorik gabekoa izan den ekarpena gizarteratuz. Garenaren harrotasuna bultzatuz.
- Marko guztietan emakumeon eskubideen berri emanez, dauden egitasmo edo ereduak eskainiz, lan eta borrokatzeko erak proposatuz, laguntza eta bitarteko humano eta materialak eskainiz.

#### **4. EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTAREN LAN ESTILOA: FEMINISTA ETA INTEGRATZAILEA**

Sexu bereizkeria bizi marko guztietan ematen bada, makinaria bakar moduan aritzen bada, non bereizkeriaren dimentsio ideologikoa, ekonomikoa eta politikoa haien artean osagarriak eta aldentezinak diren, gure jardute feministak filosofia berbera eraman behar du patriarkatuari bere osotasunean aurre egin ahal izateko. Beraz, Euskal Herrirako Plan Feminista Estrategikoa aldarrikatu eta gure ahalmen arabera gauzatzeko konpromisoa hartzarekin batera, jadanik sektore estrategikoetan mugimendu feministak daramatzen borrokek eta gu geu bultzatzen saiatuko garen ekimenek norabide bera izan beharko lukete.

Gure ustez, oso eraginkorra izan daiteke **Ekonomia arloan, Irakaskuntzan, Komunikabideetan** eta **Kulturan**, aipatutako hiru lehentasunezko helburuen<sup>1</sup> arabera zehaztuko ditugun lan irizpideak mugimendu feministaren gainontzeko eragileekin adostera iristea.

Apustu edo aldarrikapen bakar baten inguruan batu beharrean, indar feminista bakoitzaren marko errealetik eta bakoitzak dituen estilo eta izaera, hots, aniztasuna elementu aberasgarritzat kontsideratuz, era integralean (sektore guztietatik), eta ondorioz, eraginkorrean (emakumeontzako errealitate berria benetan eraikitzeko estrategiak landuz) inguratu eta garaitu nahi dugu patriarkatu neoliberalala.

Dinamika berri bat sortzeko eta bultzatzeko eragile feminista izan nahi dugu. Eta dinamika horren partaide izan daitezkeen emakume zein eragile desberdinentzako bitartekoa, besterik ez dugu izan nahi.

#### **5. EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTAN PARTE HARTZEKO ERAK: BAKOITZAREN LAN ESPARRUTIK, BAKOITZAREN BORONDATEAREN ETA AUKEREN ARABERA**

---

<sup>1</sup> - Emakumeon bizi-baldintzak hobetzea.

- Sexu-bereizkeriaren garapen historikoa, bere ondorioak eta gaur egun duen gauzatzeko era jendartearen ezagutaraztea.

- Sexuen arteko bereizketa hierarkikoa gaindituko duten harreman pertsonal eta kolektiboak sortzea.

Bilgune Feministako partaidea izateak ez du lotura organikorik suposatu behar. Sexu Berdintasunean oinarritutako Euskal Herria sortzearen aldeko konpromisoari heltzen dion proiektu orokor honen partaide izan nahi direnak, bakoitza bere bizi markoetan, lan eremuetan, sexu berdintasunaren alde lan egiten dutenak izan daitezke Bilgune Feministako partaide.

Sare horren lotura moduan, Bilgune Feministaren *informazio gunea* eta *barne-buletina* jarriko ditugu martxan. Baliabide hauen bitartez bakoitzaren lan feminista, aldaketa globalaren parte bihurtuko ahal izango dugu. Gainontzeko emakume edo eragileekin esperientziak trukatzuz eta zeharkako komunikazio-filosofia iraunkorra bultzatuz Bilgune Feministaren proiektu eta jarduera orokor zein sektorialen parte erabakitzaile izateko aukera izango dute.

Bestetik, konpromiso iraunkorragoa hartu nahi duten emakumeek, Bilgune Feministarekiko lotura estuagoa izan nahi duten emakumeek ere aukera izango dute:

Emakume horien parte hartzeko markoak *sektorialak* eta *lurraldekoak* izango dira. Batzuetan zein besteetan -eta aipatu ditugun konpromisoak<sup>2</sup> garatzearen alde-*suspertzaille funtzioa* izango dute, hau da, batetik informazio gunea eta barne-buletina eskainiko duten informazioaren bitartez, laguntza eta baliabideak eskaini ahal izango dizkiete eremu desberdinetan aritzen diren emakume eta eragileei.

Bestetik, gure proiektu eta lehentasunei helduz, emakumeontzako egoera berriak sortzen saiatuko dira sektore desberdinetan eta herri guztietan: borrokak proposatuz, bultzatuz, lagunduz... Partaide hauek burutuko duten lan hau guztia zein beraien gain hartuko duten komunikazio eta harreman lanen ardura publikoak izango dira.

Euskal Herriko Bilgune Feministak ondorengo taulan laburbiltzen diren hiru *lan gune* eskainiko ditu proiektu honetan jardun nahi duten emakumeei bai nazional mailan zein marko hurbilagoetan: *gune teknikaria*, *eragileen gunea* eta *emakumeon batzarra*. Hiru lan gune hauen arteko osagarritasuna eta hauek izango dituzten erritmoa eta izaera zehatza lekuan lekuko erabaki beharko da.

---

<sup>2</sup> 1. Proposamenen etengabeko konprezioa egitea eta egitasmo zehatz horiek gauzatu ahal izateko ezinbesteko bitartekoak bilatu zein ekimen eraginkorrak diseinatu eta bultzatzea.

2. Euskal Herrian dauden eragile feminista desberdinen arteko elkar ezagutza, harremana, kontrastea eta elkarlana bultzatzea.

3. Euskal Herrian dauden eragile politiko, instituzional, sozial eta ekonomikoekin harreman-zubiak irekitzea.

4. Emakume zapalduaren aldeko kontzientzia indibidual eta kolektiboa bultzatzea.

	<b>gune teknikaria</b>	<b>eragileen gunea</b>	<b>emakumeon batzarra</b>
<b>emakumeen profila</b>	- Bilgune Feministarekiko konpromiso iraunkor eta publikoa hartuko duten emakumeak.	- Sektore desberdinetan aritzen diren eragile feministak eta Gune Teknikarian jardungo duten emakumeak biltzeko gunea da.	- Proiektuarekiko Interesa duten emakume guztiak bilduko dituen gunea. - Profil desberdinak dituzten emakumeak biltzeko gunea. - Bilgune Feministaren kontraste gune nagusia izango da.
<b>eginkizunak</b>	- Diagnostikoak eta ditugun lehentasunen inguruko lan proposamenak egitea. - Eragile sozial eta politikoa desberdinekin harremanak izatea. - Jendartea eta sektoreen arteko elkarlana suspertzea. - Emakumeen arteko komunikazioa bultzatzea.	- Sektore desberdinetan proposatu eta bultzatuko diren jardueretan lan egitea. - Sektore desberdinetan garatuko diren jarduerak koordinatzea. - Herri eta sektoreen arteko koordinazioa bermatzea.	- Emakumeen arteko komunikazioa eta kontzientzia feminista kolektiboa suspertzea. - Emakumeen iritziak zabaltzea, emakume guztien interesen erreferentzia bihurtzea gainontzeko eragile zein instituzioei begira.

Lehenengo urratsa, sektore bakoitzean nazional mailako gune teknikari bana martxan jartzea izango da. Gune hauetatik, sektore bakoitzean aritzeko interesa izan dezaketen emakumeak subjektu erabakitzaile bihurtzeko bitartekoak jartzea ezinbestekoa da.

Sektoretako gune teknikarietatik jarduera feminista suspertzeko proposamen eta bitartekoak zehaztuko dira, sektore bakoitzean egon daitezkeen eragile desberdinekiko harremanak irekiko dira eta sektore bakoitzean egon daitezkeen eragile feministen artean komunikazioa suspertuko da.

Azkenik, sektore eta herriaren mailen arteko koordinazioa bultzatuko da, herri bakoitzean sektore hauetan planteatu daitezkeen aldarrikapenak bultzatuz eta sektore bakoitzean bultzatzen diren jarduerak herrietara zabalduz.

## **6. EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTAK IZANGO DITUEN HARREMANAK**

Gure lehentasunezko harremanak Euskal Herriko Mugimendu Feministarekin eta aldaketa sozialaren bidean aritzen diren eragileekin izango ditugu.

Bilgune Feministaren izaera eta osaketa anitza izango da, beraren partaideak gaur egungo Mugimendu Feministaren eragile desberdinak direlarik. Mugimendu Feminista osatzen duten emakumeen talde edo elkarte, erakunde feminista edo erakunde misto desberdinetako emakume ordezkariekin komunikazio eta kontraste zubiak zein kidetasun harremanak izan nahi ditugu. Dударik gabe, sexu berdintasunean oinarritutako Euskal Herria sortzeko konpromiso praktikoa hartzen duten eragile feministekin kidetasun harremanaz gain aliantzak eta egunerokotasunezko harremanak eratuko ditugu.

Aldaketa sozialaren bidean arituko diren eragile sozialekin lehenasunezko harremanak izango ditugu. Emakumeon askabidea justizia sozialean eta demokrazian oinarritutako jendartearen eskutik etorriko da, beraz, beharrezkotzat jotzen dugu eragile hauekin bat egitea gure helburuak lortzerako bidean eta horretarako beharrezkoak izango ditugun bitarteko eta baldintza komunak sortzen aritzea. Bestetik sexu berdintasuna zeharkako irizpide bilakatu behar den heinean, eragile sozial horiekin hitz egiteko eta exijitzeko dinamikak irekiko ditugu ere.

Azkenik, Bilgune Feministak Euskal Herriko instituzio desberdinekin izan behar dituen harremanak honako hauek izan daitezkeela uste dugu:

Alde batetik, emakumeen arazoak eta hauek konpontzeko proposamenak helarazi behar dizkiegu, instituzioak baitira sexuen arteko harreman hierarkikoak gainditzearen aldeko adostutako neurriak jendarte osoan ezartzeko botere ekonomiko, politiko eta ideologiko dutenak. Gure ustez, euskal emakume feministek detektatzen dituzten arazo eta proposatzen dituzten irtenbideen adi egon beharko lukete instituzioek behar bezalako konponbideak jendarte osoan ezartzeko.

Bestetik, emakumeon egoera hobetzeko asmoz instituzioek martxan jartzen dituzten planak aztertu beharko genituzke, ebaluatu, aurkitutako akatsen berri beraiei eta jendarte osoari jakinarazteko, eta eragile feministen artean hobekuntzak ala aldaketa sakonak adostu eta gero, urrats eraginkorrako eman ahal izateko. Gure ustez, feminismo instituzionalaren portaera ebaluatzeko tresna izan daiteke Euskal Herriko Bilgune Feminista.

## **7. GURE LANA GARATZEKO MARTXAN JARRIKO DITUGUN PROIEKTUAK**

### **Informazio gunea**

Aipatu dugun moduan informazio gunea eta informazioa zabalduko duen barne-buletina, Bilgune Feministako partaideen artean komunikatzeko izango ditugun bitarteko nagusiak dira. Informazio gunea ez da proiektu isolaturik izango, baizik eta gure antolakuntza-ereduaren oinarritzko zutabe. Beraren bitartez eztabaidak eta kontrasteak egiteaz gain, hartze-ematearen erlazioa gauzatu ahal izango da.

Informazio gunearen eduki garrantzitsuenetarikoa sektore estrategikoekin lotuta egongo da, sektoreei buruzko diagnostikoak, lan proposamenak eta esperientzia desberdinak bilduko dira. Baina horrekin batera eta nahiz eta lehenasuna ez izan, ahal bezain laster martxan jarri nahiko genituzke Informazio gunearen beste bi atal: bata, *informazio orokorra* aurkitzeko lekua izango da, non gai zehatzen inguruko informazioa - Euskal Herriko biltoki desberdinetan aurki dezakeguna ala guk geuk bil dezakeguna- eta abar aurkituko dugun; bestean, *asistentziarekin* erlacionatutako gaiak biltzen saiatuko gara (elkartek, profesional mota desberdinak...).

### **Ikerkuntza zentroa**

Diagnostikoan, proposamenak zehazterakoan aurkitu dugun oztopo nagusienetarikoa bat egoeraren inguruko perspektiba desitxuratua izan da, batetik Euskal Herri osoko ikuspegitik azterketarik ez dagoelako eta bestetik patriarkatuaz kutsatu gabeko azterketa

orokor (tendentziak...) edo zehatzik (paro tasak, populazioa...) aurkitzea ezinezkoa izan zaigulako. Aurrera begirako proposamen askok emakumeok eta oro har euskal jendarteak dituen arazo edo beharretatik abiatu behar dira. Ikerkuntza Zentro honen bitartez, egoeraren azterketa errealak, desitxuratzeari aurre egitea eta gure jardueretarako ezinbestekoa izango zaizkigun hausnarketa eguneratuak eta Euskal Herrian kokatutakoak burutu nahi ditugu.

Honetarako gu geu bitartekoak jartzearekin batera, Euskal herrian azterketak, hausnarketak egiten dituzten eragile eta emakumeen arteko sare bat egitea proposatzen dugu. Azterketa feministak egiteko irizpideak trukatu, lehentasunak markatu eta lana gure artean banatu eta trukatzeko asmoz.

### **Politika instituzionalen behatoki feminista**

Instituzio politikoak guretzat ez dira lan eremu arrunt bat, instituzioek gainontzeko sektoreetan eragin behar dutelako, instituzio politikoak kontrol, behartze, herritarren borondatearen garatze funtzioa bete behar dutelako, instituzio politikoek jendarte estrukturatzearen funtzioa izan beharko lukete. Ondorioz, instituzioei begirako, instituzioetan aritzen diren alderdi politiko zein teknikari desberdinekiko jarduerak izatearekin batera (hitz egitea, elkarlana, aldarrikapena), instituzio desberdinetan garatzen diren politika estrukturalen eta espezifikoaren azterketak eta bilduko dituen behatokia martxan jartzea proposatzen dugu.

Behatoki honen bitartez azterketa hauek egin, herriratu, kontrastatu ahal izango genituzke. Azterketa hauen baitako iritziak plazaratu, tendentzia politiko-instituzionalak aurreikusteko beharra dagoela uste dugu. Behatoki honen bitartez, mundu mailan dauden beste politika instituzionalen berri izan nahi dugu ere, hauen ondorio positibo eta negatiboak aztertu, hauen aplikapenaz ikasi. Azken batean, Behatokian, instituzioetan aritzen diren eragile edo pertsona orori beraren jarduerarako proposamenak eskaintzea nahi dugu.

Behatokian sexu berdintasunean oinarritutako Euskal Herria sortu ahal izateko ezinbestekoa den politika instituzional, herritar, nazional, integral eta eraginkorra gauzatzeko irizpideak eta baldintzak landu nahi ditugu.

Euskal Herrian, 2002ko apirilaren 20an.

**Euskal Herriko Bilgune Feminista**